ESPAINIAKO GERRA ZIBILAREN

(1936-1939)

PAISAIAK DONOSTIAN

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA

FACULTAD DE LETRAS

HISTORIAKO GRADUA

2021/2022

LAURA MIRÁS LÓPEZ

Zuzendaria: Jose Rodríguez Fernández

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

LABURPENA

Lan honetan, Espainiako Gerra Zibilean Donostian erabilitako eraikin nagusiak aztertuko dira, horretarako, fitxa batzuk egin dira leku horiek katalogazioaren bidez deskribatzeko, hauek alfabetikoki ordenatuak joango dira. Lan honen azterketa orokorrena aztertuz egin da, zehatzenetara iristeko. Lanean garatuko den lehenengo gauza helburuak izango dira, hasieratik oso argiak izango direnak, eta horrekin batera, lana garatzeko erabili den metodologia. Ondoren, sarreran, lanaren arkeologia nagusiaz hitz egingo da, Paisaiaren Arkeologiaz, eta hori deskribatzeko Florentziako Legea erabiliko da. Jarraian, ikerketa-proposamenaren funtsezko kontzeptuak azalduko dira. Hemen arkeologia modu teoriko batean landu egin da. Atal honetan, lana inguratzen duten bi arkeologia aipatuko dira: Iragan Hurbileko Arkeologia eta Gerra Zibileko Arkeologia. Lehenik, Iragan Hurbileko Arkeologiaz hitz egingo da, eta, ondoren, Gerra Zibileko Arkeologiaz; izan ere, lanaren egiturari jarraituz, lehenengoa orokorragoa izango da, eta bigarrena zehatzagoa, hau da, lana gehiago zehaztuz eta bata bestearen barnean sartuz. Era berean, Espainiako Gerra Zibila modu laburtuan azaltzen saiatu da, ez baita lanaren helburua, segidan azaldu da Euskadin Gerra nola eman zen, teorikoki, hemen ere lana bere egiturari jarraitzen ari zaiola ikusten da, orokorretik espezifikora. Horren ondoren, Euskadin gerrari lotutako tokiak eta eraikinak deskribatuko dituen lanaren zatirik zehatzena sartuko da; horiek lau ataletan deskribatuko dira (espetxeratze-zentroak, gatazka belikoko lekuak, osasun militarreko zentroak eta derrigorrezko laneko lekuak), eta tipologien arabera antolatuko dira, eta horren barnean alfabetikoki. Lana amaitzen, memoria historikoaz hitz egingo da. Hemen, Donostian dauden oroitzapen-elementuak deskribatuko dira, garrantzi handia dutenak, eta, kasu honetan, eraikinak eta lekuak tipologiaren arabera antolatuko dira orain esan bezala. Azkenik, lanaren ondorioetan atal bakoitzeko ideia nagusiak ikusiko dira, eta lan osoan zehar indarra eman nahi izan zaienak. Amaitzeko, memoria historikoa berreskuratzeko proposamen bat egin da Donostian, Gerra Zibilarekin zerikusia duten eraikin eta leku guztietan bistakoak diren memoria-plakak jartzea, eta iada dutenak bistan izatea. Gainera, inkesta bat erabili da, lau galderekin, nahiz eta galdera gutxi izan proposamena berresteko balio izan dute.

AURKIBIDEA

ABIAPUNTUA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA **3**

IKERKETA-PROPOSAMENAREN FUNTSEZKO KONTZEPTUAK **5**

Iragan Hurbileko Arkeologia 5

Gerra Zibilaren Arkeologia 8

ESPAINIAKO GERRA ZIBILA: DONOSTIAKO PAISAIA **11**

Espetxeratze-zentroak 12

Gatazka belikoko lekuak 16

Osasun militarreko zentroak 16

Derrigorrezko laneko lekuak 18

ARKEOLOGIATIK MEMORIA HISTORIKORA **20**

IKERKETAREN ONDORIOAK, PERTZEPZIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK **23**

BIBLIOGRAFIA **26**

ERANSKINAK: IDENTIFIKAZIO-FITXAK. **29**

1. ABIAPUNTUA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Honako hau da Gradu Amaierako Lan honetan garatu beharreko gaia: "*Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) paisaiak Donostian*". Azterketa bat egingo da, orokorretik espezifikora joango dena, Paisaiaren Arkeologia gaingiroki egindako azterketa batetik, hiri-paisaiaren azterketa baterantz, Euskal Herriko Kantauriko kostaldearen mailan, Donostian, non ikerketa egiteko aukera eta, batez ere, plazer bat izan den.

Gradu Amaierako Lan honen gaiaren aukeraketaren zergatia, nire sustrai donostiarretan dago; lan honek eskainiko zidan aukeran, bizi naizen hiriaren historia hobeto ezagutzeko, hunkitu egiten nauena, eta baita gaiekiko sentitzen dudan interesean ere, hala nola arkeologian, historia garaikidean eta arlo honen barruan, Gerra Zibilean. Horrekin batera, ez da ahaztu behar ondare historikoak duen garrantzia, oraindik sakondu gabeko gaia dela uste baitut, eta ez dago horren kontzientzia nahikorik. Jende askok ez daki, Donostiakoa bera dena, etxeek, hotelek, entzunaretoek, elizek eta ikastetxeek iragan bat dutela, eta gaur egun ez duten beste funtzionamendu bat izan zutela. Hori ezagutzea eta aztertzea ardura handikoa iruditzen zait, ahanzturan eror ez dadin. Nire lurra sakonago ezagutzeko erronka pertsonala da lan hau, orain arte niretzat ezezaguna zen ikuspuntu batetik.

Beraz, azterketa-helburua paisaia bat ikertzea izango da, baina ez paisaia tradizional bat, landa-paisaia bat izan daitekeen moduan, baina bai markoaren barruan sartzen dena. Florentziako hitzarmenaren arabera, 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera egin zena, eta Florentziako hirian 2000.urtean amaitu eta Europako Kontseiluaren baitan egin zena, "paisaia" lurraldearen edozein zati biztanleriak hautematen duen moduan hartuko da, eta haren izaera faktore naturalen eta/edo giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza izango da. Hori dela eta, ikertuko den paisaiaren ezaugarriak dira, alde batetik, eremu populatua izango dela, eta, bestetik, hiri urbanoa dela, hau da, gizakiek eraiki eta eragindako hiria dela.

Ohar pertsonal moduan, paisaia oso garrantzitsua da historiarako, bertan ikusten da zer gertatzen ari den momentuan. Erlazio bat sortzen da espazioaren, denboraren eta gizartearen artean; kasu honetan, eta erlazio hauek kontuan hartuz argi dago, gerran dagoen hiri bat aztertuko dela.

Beraz, lanaren helburu nagusia eraikin berrien artean askorentzat ahaztua izan den ondareari balioa ematea da. Bestalde, eraikin horien egungo egoera aztertu nahi da, iraganeko funtzioarekin kontrastatuz; horrela, eraikin horien miaketa egingo da: espetxeratze-zentroak, osasun militarrerako zentroak, gatazka belikoko eta derrigorrezko lanak egiteko lekuak. Jarraian, hiriaren memoria historikoaz hitz egingo da. Amaitzeko, ondorioetan, leku horiek historikoki berreskuratzeko proposamen bat egin nahi da, ahanztura eta bere funtzioa erne jarriz. Horrek guztiak lanaren helburu nagusira garamatza berriro, ondareari duen balioa ematea.

Jarraitu beharreko metodologiari dagokionez, hainbat lan-modu eta informazio-iturri konbinatuko dira. Logikoki eta lehenik eta behin, lanak martxan jarri behar zuen antolaketa egituratu behar izan da, ikerketak aurrera egin ahala aldatuz joan dena, eskuragarri zeuden baliabideen arabera.

Lanaren gakoa Gerra Zibilean eta frankismoan erabilitako eraikinak izango zirela argi izanik, horien inbentarioa egiten hasi ziren. Horiek guztiak ezin zirenez islatu lanaren hedapen mugatuagatik, hautaketa bat egin da, irizpide desberdinen bidez, hala nola, eguneko kontserbazio egoera kontuan hartuz (desagertua, aldatua edo berdin jarraitzea).

Fitxak biltzea izan da lanaren zatirik konplexuena, erregistro sistematikoa eta homogeneoa egiten saiatu baita, iturri bibliografikoak, dokumentalak, kartografikoak eta landa-bisitak erabiliz. Horrela, jasotako 22 fitxak tipologia funtzionalen arabera antolatzen dira, eta tipologia bakoitzaren barruan, ordena alfabetikoaren arabera. Kontuan hartutako aldagaiak askotarikoak dira: kokapena, deskribapen laburra, funtzionaltasuna, kontserbazio-egoera, ondare-babesa, oharrak, erreferentziak... Horrekin batera, argazki historikoak eta gaur egungoak, hauek argazki pertsonalak izanik, eta Geoeuskadi bisorearen bidez lortutako kokapen-plano bat.

Ikerketaren oinarri teorikoak ezarri ondoren, diskurtsoa bilketa-lanean oinarritzen da, zeinak Donostiako Gerra Zibilari lotutako hainbat materialtasunen panoramika historikoa eskaintzen baitu, erreferentziazko obra eta baliabide digitalez gain. Ez da erraza izan, kasu askotan eraikinak eta egiturak ezezagunak baitira jende guztiarentzat, eta iragana ezkutuan dago. Hain zuzen ere, lanaren azken zatiak gai horri buruz hausnartu nahi du, nire ikuspegi partikularra eskainiz eta beste pertsona batzuena ere, inkesta baten bidez. Galdetegi horren oinarriak, baldintzak eta emaitzak ikerketaren bosgarren eta azken puntuan azaltzen dira.

2. IKERKETA-PROPOSAMENAREN FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

a. Iragan Hurbileko Arkeologia

Esan genezake arkeologia eliza tolerante bat dela eta hainbat arkeologia hartzen dituela bere barne (Renfrew eta Bahn, 2007: 11). Arkeologiak bata bestearekin osatzen dira, eta seguruenik oso zaila izango da bata bestea gabe aztertzea, horrek ez du kasu guztietarako araua izan behar, baina ikasitakoagatik, kasu gehienetan gertatzen da. Horregatik lan honetan nahiz eta Paisaiaren Arkeologia izan nagusia, beste batzuekin bat egingo du, Iragan Hurbileko Arkeologiarekin eta Gerra Zibilaren Arkeologiarekin, lanak hartzen duen aldia delako.

Arkeologia, duela urte batzuetatik hona, tentsio kontzeptual, etiko, akademiko, profesional eta politiko sakonen mende egon da, diziplina hau ulertzeko modu jakin baten krisiaren eta kolapsoaren ondorioz. Horregatik ez diogu definizio unibertsalik aurkitzen. Iritzi publikorako oraindik ere oroigarria da altxorrak, "jatorriak" edo herri baten antzinatasuna estalgabetzen duen arkeologiaren ideia (Quirós, 2013: 9). Hala ere, definizio akademiko ohikoenaren arabera, gizarteak beren aztarna materialen bidez aztertzea da. Giza iragana aztarna materialen bidez aztertzea ere badela esan daiteke. Gaur egun eskuragarri dauden definizioetan ez da zehazten iragana urrunekoa izan behar denik edo aztarna materialak oso zaharrak direnik (González-Ruibal eta Ayán, 2018: 15). Horrela, SAA (Society for American Archaelogy), munduko arkeologo talde profesionalik handienaren orrialdean jakinarazten zaigu diziplina aztertzen ari dela "Afrikako gure giza arbasorik zaharrenen duela milioika urteko hondakin fosilizatuetatik hasi eta New Yorkeko XX. mendeko eraikinetaraino". Helburu bera du, edonola ere: "giza kulturaren ulermen zabalagoa lortzea"[1]. Bestalde, RAEren (Real Academia Española) arabera, arkeologia "antzinako arteak, monumentuak eta objektuak aztertzen dituen zientzia gisa definitzen da, bereziki bere aztarnen bidez"[2]. Definizio honi erreparatuz, arkeologia bere aztarnen bidez, antzinako arteak, monumentuak eta objektuak aztertzen dituen zientzia da, bai, baina ez antzinatasunarena bakarrik. RAE jendearengan eragin handia duen hiztegia da, eta are gehiago profesionalak ez diren pertsonentzat; beraz, definizio hori izango da gizarteak bereganatuko duena, eta horren aurka egin behar da.

Arkeologiaren definizioa aztertu ondoren, Iragan Hurbileko Arkeologia aztertzen has gaitezke. 90eko hamarkadaz geroztik, garai berriagoetako arkeologia garatzen ari da, Arkeologia Garaikidea bezala ezagutzen dena. Ikerketa-ildo hau XX. eta XXI. mendeetan oinarritzen da,

[1] https://www.saa.org/default.aspx?TabId=1346
[2] https://dle.rae.es/arqueolog%C3%ADa

arkeologia historikotik edo Erdi Aroaren ostetik kanpo geratu ohi baitira, berriegiak direlakoan (Harrison eta Breithoff, 2017; González-Ruibal eta Ayán-tik hartua, 2018: 24). Arkeologia honen helburuak askotarikoak dira: Aro Garaikidearen karakterizazio arkeologikoa (González-Ruibal, 2008; González-Ruibal eta Ayán Vila-rengandik hartua, 2018: 24) edo esku hartze sortzailea oraingo denboraren materialtasunean (Harrison, 2011; González-Ruibal eta Ayán-tik hartua, 2018: 24), besteak beste. Arkeologia Garaikidearen historia, laburra izan arren, oso nahasia da: 70eko hamarkadan bere gizartea arkeologia-ikuspegiarekin aztertzea erabaki zuten ikertzaile amerikar batzuen lanean du jatorria (Gould eta Schiffer, 1981, González-Ruibal eta Ayán-tik hartua, 2018: 24). Izan ere, azpidiziplina honen lehen izena «gure buruaren arkeologia» (Archaeology of Us) izan zen. Hala ere, arkeologia hori oso lotuta zegoen bere proposatzaile nagusiekin, eta akademiaren barruan bazterreko zerbait bihurtu zen. Azpidiziplina XXI. mendearen hasieran sortu zen berriro, oraingoan jada gehien zabaldu den izenarekin, Iragan Garaikidearen Arkeologia. Victor Buchlik eta Gavin Lucasek (2001) argitaratutako liburua da etapa berri honi hasiera eman ziona. Arkeologia honek asko zabaldu ditu bere horizonteak (eta diziplinarenak oro har). Gizateriaren aurkako krimenak ikertzen laguntzearen bidez, Arkeologia Garaikideak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, bai akademian, bai akademiatik kanpo. Era berean, ondare gatazkatsuen kudeaketari esker (Colls, 2015; González-Ruibal eta Ayán-tik hartua, 2018: 25). Bere denbora-esparrutik haratago, bere baitan gertatzen diren eztabaida teorikoek gai garrantzitsuak birplanteatzen dituzte, hala nola denborazkotasuna, hondakinaren nozioa edo arkeologiaren inplikazio etikoak. Bestalde, Arkeologia Garaikidea ez dagoenez gainerako diziplinak bezain muga akademikoen mende, ikertzaile askok praktika esperimentalak eta berritzaileak egiten dituzte, batzuetan artisten eta beste sortzaile batzuen laguntzarekin (González-Ruibal eta Ayán, 2018: 25).

Iragan Hurbileko Arkeologia zer den ulertzeko, funtsezkoa da esaldi hau ulertzea, "arkeologia oro egungo arkeologia da". Esaldi horrek esan nahi du arkeologia, azterketa-eremu gisa, hemen eta orain hasten den eremua dela, eta gure esku dagoela. Hau da, gure orainaldiko masa heterogeneoa osatzen duten aztarna materialen konplexutasuna arkeologoaren begiekin behatu behar dugula. Gure paisaiek, hiri-paisaiek edo landa-paisaiek, asko dute irakasteko gure diziplinaren xedeari buruz. Zehazki azter daitezke eraiki edo egin diren gauza guztiak, zerbitzatu edo bizi diren gauza guztiak: etxeek, objektuek, baliabideek eta beste gauza askok oraindik ere denbora arkeologikoaren funtzionamenduari buruz irakasteko asko dute, denbora arkeologikoa materian erregistratzen baita eta historia deitu behar zaiona sortzen baitu. Aztarnen segida iker daiteke, aldatzen diren elementuak egonkor mantentzen direnekin bereizi, baita aldatzen dena eta irauten

duena ere. Oraina egungoaren aurretik dauden eta bertan erregistratzen diren iraganei irekitzen zaie. Beraz, gaur egungo arkeologia arkeologia osoa da (Olivier, 2011: 91-92).

Praktikan, arkeologo gehienak ez dira gai horietaz arduratzen, aztarna "modernoak", "berri" gisa baztertzen direnak baitira, hau da, "ez arkeologikoak". Agerikoa dirudi, iragana dela interesa pizten duena, arkeologiak "antzinako" gauzak aztertzen dituelako. Baina garrantzitsua da gogoratzea, gaurtik atzerantz egiten dugu indusketa, hurbilagoa izan ala ez. Arkeologiari dagokionaren eta ez dagokionaren arteko muga kronologikoa egin behar den unetik aurrera gauzak korapilatu egiten dira. Muga kronologikoa da? Erdi Aroa arkeologikoki azter daiteke eta diktadurak eta gerra garaikideak ez? Kontua da beste iturri batzuk badaudela dioen kontzeptua gainditzea, hala nola ahozkoak edo idatzizkoak. Diziplinaren azken 50 urteetan, bere eremu kronologikoa azken aldietara gero eta gehiago luzatzen dela ikusi da, eta hau kontu konplexua da. Adituen ustez, eremu berri horiek inkongruenteak diruditen arren, beren diziplinaren adierazpenaren jatorriari buruz galdetzen ari dira oraindik, eta eremu berri horiek dagoeneko lantzen dira eta datuak ematen dituzte. Izan ere, datu arkeologikoen erregistro sistematikoa egiten den unetik, Aro Moderno eta Garaikideko aztarnak aztarnategi arkeologiko zaharrenen egituran agertzen dira, eta, beraz, sarritan ezinezkoa izaten da horiek ohiko perturbazio edo nahasmendu soil gisa ateratzea. Kasu askotan, "arkeologikotzat" jotzen diren garaietan eratutako aztarnategiak (gehienak jatorri erromatarreko hiriak edo Goi Erdi Aroko eraikin erlijioso ugari izanik) garatzen eta eboluzionatzen jarraitu dute oraintsuko garaietaraino, eta horiek, oro har, objektiboki ez-arkeologikotzat hartu dituzte, gure orainaren parte direlako, edo, behintzat, gure iragan hurbilaren parte (Olivier, 2011: 92-93). Baina azkenean, kontuan eduki behar da aztarnategi arkeologiko batean esku hartzen denean aztarna garaikideak aurkituko direla, nahiz eta helburua Erdi Aroko eliza bat izan, eta hauek ikerketa-eremuak dira, besteak bezala.

Hemen, martxa arkeologikoaren ohiko proposamena alderantzikatu behar da: garrantzitsuena ez da gaur egungo leku batzuek jatorri arkeologikoak izatea, berez aztertzea interesgarria litzatekeelako; aitzitik, aztarnategi horiek azken aldian izan dituzten eraldaketak ezin dira beren historiatik ezabatu epe luzera. Iragan hurbila, eta horrekin batera oraina, sekuentzia arkeologiko bat besterik ez da, aurretik daudenekin modu naturalean bat egiten duena, honek material berrien antzinako aztarnategi edo aztarnak handitzen dituen heinean edo eraldaketa fisiko berrien ondorioz eraldatzen dituen heinean. Funtsean, eraldaketa horiek lekuen iraupen luzean kokatzen dira, haien jatorria historiaurrera erraz itzul baitaiteke. Orainaren nortasun arkeologikoa ukatzea ikuspuntu estetiko bat besterik ez da, berez aztarna arkeologikoen izaeran oinarritu ezin dena.

Oraina, batez ere, arkeologikoa da, iraganeko garai guztiak bezala, horien luzapen historikoa besterik ez bada ere (Olivier, 2011: 93).

Beraz, argi izan behar da, gaur egun arkeologia egiten ari dela eta hortik atzera doala, berdin da zer garai induskatu nahi den, gaur egunetik egiten ari da, eta ez iraganetik. Oso garrantzitsua iruditzen zait Iragan Hurbileko Arkeologiari merezi duen garrantzia ematea, gure iraganeko lehen geruza baita, eta ez dugu zertan alde batera utzi behar beste iturri batzuk ditugulako, arkeologiak materialtasuna irakasten digu, iturriek egiten ez duten zerbait. Azkenean, arkeologia Historiaren zientzia lagungarri gisa ikusi da, eta Historiako zerbait denean ez dute esku hartu behar ikusten, eta hori kontzeptu tradizionala da, sahiestu nahi dena lan honetan. Gainera, memoria-leku gisa ikusten dira eremu Garaikideak, eta ez arkeologikoak. Biak batean ikus ditzakegunean.

a. Gerra Zibilaren Arkeologia

Istorio asko ez daude egunkarietako berrietan, artxiboetako dokumentuetan, protagonisten egunkarietan edo biktimen testigantzetan oinarrituta. Historia batzuk gerrako hondakin materialetatik abiatzen dira: lubakiak, kontzentrazio-esparruak, metraila, latak, tintontziak eta hezurrak, baita borrokatu edo hil zituztenenak ere. Gerra Zibilaren Arkeologiak gure bizitzetan oso presente jarraitzen duen iragan traumatiko baten historia materiala erakusten digu. Eremu berri honek duen arazoetako bat, ordea, zatiketa eta lokalismoa da (González-Ruibal, 2016: 23-24).

Arkeologia hori azaltzeko, honako hau jarri behar da zalantzan: zer geratzen da gaur egun gerratik? Gure oroimenean, paisaian, kutxetan eta trastelekuetan gordetako objektuetan. Eta zergatik gustatzen zaigu Gerra Zibilaren historia?

Lehenengo galdera arkeologikoa da: zer gorde da iraganetik orainaldian? Gerraren aztarnak bere ikusgarritasuna bezain askotarikoak dira. Lubakiak, monumentuak, hilerrietako hormak, kontzentrazio-esparruak, espetxe gisa berrerabilitako fabrikak, hobiak, hezurrak, dominak, aireportuak. Aztarna batzuk oso agerikoak dira, beste batzuk ia oharkabean pasatzen dira paisaian, lubakiak adibidez; hau da, ikerketa baten bidez baino ezin direnak aurkitu, eta hori da hobien kasua. Esan liteke ikuspen-borondate bat dagoela (monumentu frankistak), ezkutatze-borondate kontziente bat (hobiak) eta ahazteko beste bat (gudu-zelaiak). Hala ere, lan honek gerrak uzten dizkigun ageriko aztarnak aztertuko ditu. Arkeologiak iraganeko aztarnak aztertzen ditu eta

bereizi gabe aztertzen ditu: gure memoriaren parte direnak eta memoria horretatik bota ditugunak. Bereizi gabe aztertzen ditu, ez baitie gauza ederrei bakarrik erreparatzen, ez pertsonaia handien jabetzei, ez historioaren funtsezko pasarteei, baizik eta gauza guztiei (González-Ruibal, 2016: 29).

Bigarren galderak, hainbat erantzun posible ditu. Hasteko, senideak presente egon dira gure bizitzan, eta haien istorioek osatu dute gure eguneroko bizitza. Lan honen bigarren arrazoia eta gakoa, gai hau aztertuko duena, hurbiltasuna da, baina ez familiarra, kasu honetan, geografikoa baizik. Gerraren eta gerraostearen aztarnek inguratzen gaituzte frontetik hurbil edo urrun bizi garelako. Lubakiak edo Jainkoak eta Espainiak eroritakoentzako monumentuak izan, gatazkaren materialtasuna gure eguneroko paisaiaren parte da. Hori arazoaren zati bat da: hain egunerokoa izatetik, batzuetan, ez dugula hauteman ere egiten. Eta berriro ikusten dugunean (adibidez, indusketa arkeologiko edo bisita gidatu batengatik), harridura izugarria sortzen digu hori (metraila-aztarnak dituen horma bat, adibidez) gure etxearen ondoan egoteak. Hori hirugarren arrazoi batekin lotuta dago, Gerraren historia erakartzeagatik: pentsaezina den indarkeriagatik. Gerra Zibila oso urrun eta oso gertu dago aldi berean. Beste arrazoi bat gehitu daiteke: gerrako zauriak ez direla sendatu sentitzen dugu. Espainiako Gerra Zibila historialari teorikoek «iragan ez-ausente» deitzen dutena da (González-Ruibal, 2016: 30).

Horrek zerikusi handia du Gerra Zibileko arkeologiarekin. Gaur egungo munduko historialariak gure gizartearen borroketan murgilduta daude ezinbestean: jendeari ez baitzaizkio gehiegi axola Brontze Aroko gatazkak (agian ez dituztelako ondo azaldu, dena esan behar da), baina bai XX. mendekoak, oraindik gure bizitzak baldintzatzen dituztenak. Arkeologiaren kasuan, iragana orainaldian sartzea are argiagoa da; izan ere, gaur egun existitzen diren iraganeko aztarnak dira, egunero gurekin bizi direnak (ez daude inongo artxibotan sartuta) (González-Ruibal, 2016: 31).

Arkeologiak gertakari ezezagunak ezagutzeko aukera ematen du (hala nola, gerra kolonialak, bigarren mailako gerra-fronteetako batailak, terrorismoa). Batzuetan ez dira oso ezagunak, gobernu bat arduratu delako gertatu denaz inor ez jakiteaz: pentsa ditzagun edozein ilajeren diktadurek gizateriaren aurka egindako krimenak. Hala ere, arkeologiak hilketen aztarnak dokumentatu ahal izan ditu. Kasu gehienetan ez da krimen horien agiri-aztarnarik geratzen. Baina arkeologiak hobi komunak eta tortura zentro klandestinoak induskatu ahal izan ditu, militarrek boterean egindako ankerkeriak erakusteko. Gertakari berrien ikerketa arkeologikoa egiteko beste arrazoi garrantzitsu bat da dokumentu historikoak okerrak izan daitezkeela, dela akatsagatik, dela egia ezkutatu nahi izateagatik. Baina gertakarien protagonistei galdetzen badiegu? Psikologoek eta

historialariek egiaztatu dute gertakari traumatikoen oroitzapenak izugarri desitxuratzen direla. Indarkeriaren alderik ilunena desagertu egiten da hitzez adierazitako memoriatik (González-Ruibal, 2016: 35-36).

Gizarte demokratiko batean eztabaida politikoak arnasa hartzea bezain naturala izan beharko luke. Hemen kontzienteki erabili da «arlo politikoa», terminoa politikatik bereizteko, eta horrek zerikusi handiagoa du alderdien jarduerarekin. Sarritan biak nahasten dira, adibidez, Gerra Zibileko arkeologia politizatuta dagoela kritikatzen denean. Horrekin batzuetan adierazi nahi da alderdi jakin batzuek manipulatzen dutela eta interes alderdikoiak dituztela. Egia da batzuetan horrela dela, baina ez da araua. Hala ere, jauregi etruskoei buruz hitz egiteak ere posizio politikoa eskatzen badu (haietan giza asmamenaren aurrerapena edo oligarkien sorrera eta gizarte-esplotazioa ikus baititzakegu), zenbat gehiago hobi komunen eta lubakien kasuan (González-Ruibal, 2016: 32).

Arkeologiak guztion esperientziara hurbiltzeko aukera ematen digu: aztarna materialek ez dituzte bereizten jeneralak eta soldadu soilak, gizonak eta emakumeak, politikariak eta nekazariak. Are gehiago, jende arrunta pertsonaia apartak baino askoz hobeto irudikatzen da. Aztarna materialek eguneroko istorioen berri ematen digute, eta horiek ez dute beti historialarien arreta bereganatzen (Gerra Zibileko historialariena, behintzat), gai politiko, sozial, ekonomiko edo militarrekin kezkatuago baitaude. Objektuetatik abiatuta, arkeologiak gerraren eta diktaduraren historia kulturala eraikitzen laguntzen du. Arkeologoek ikuspegi paregabea eta, zentzu askotan, argigarria eskain dezakete xehetasun materialetatik abiatuta (González-Ruibal, 2016: 35-37).

3. ESPAINIAKO GERRA ZIBILA: DONOSTIAKO PAISAIA

Donostiako Gerra Zibileko paisaiekin sartu aurretik, lanak gerra honen sarrera laburra behar du, honako paisaia eta eraikin hauek testuinguru historikoan jarri ahal izateko. 1936ko uztailaren 17an eta 18an Espainiako Bigarren Errepublikaren aurka Estatu Golpe bat eman zen, honek porrot partziala izan zuen. Estatu kolpea Espainiako militarren eta erakunde politikoen eskutik etorri zen. Ekintza horrek Gerra Zibil handi bati bide eman zion herrialdeko komunitate guztiei eragin ziena. Orduan, Espainia bi bandotan banatuta geratzen da: alde errepublikarra eta bando matxinatua, edo nazionalistak. Bi alde horiek biktimak eta biktimarioak izan ziren. Nazioartean, Bigarren Mundu Gerra hastear zegoen, eta Espainia leku idoniarra izan zen alemaniarrek eta italiarrek armak froga zitzaten. Bi herrialde horiek matxinatutako bandoaren alde egin zuten, eta laguntza hori,

errepublikarren artean zegoen ezegonkortasunarekin batera, nazionalistek gerran garaipena izatea lortzeko arrazoietako bat izan zen. Hala, 1939ko apirilaren 1ean Espainiako Gerra Zibila amaitu eta Francisco Francoren diktadura luzea hasi zen, herrialdeko krisi handi batekin batera.

Euskadiren kasua Gerra Zibilean zentratuz; ia Araba osoa matxinatuen esku geratu zen gerra hasi bezain laster, Nafarroa bezala, Aragoiko zati bat, Galizia, Gaztela-Leon, Extremadurako zati handi bat, mendebaldeko Andaluzia, Kanariar Uharteak eta Balear Uharteak, Gipuzkoa 1936ko irailean erori zen eta Bizkaia 1937ko udan (Badiola, 2015: 49). Loiolako gertakariekin eta matxinatuek Irun okupatzearekin batera, Gipuzkoan errepresio frankistari hasiera eman zitzaion. Ahozko lekukotasunek hiriaren itxura tamalgarria adierazten dute 36ko irailaren 13ko arratsaldean, erori zen eguna. Egun osoan eta aurreko egunetan, Defentsa Batzordea eta agintari militarrak egon ziren biztanleria zibilaren zati baten ebakuazioa antolatzen, matxinatutako tropek izan zitzaketen talka militarrak eta balizko errepresaliak saihesteko. Donostiako portutik tona askoko ontzi batzuk pleitatu ziren, arrantza-ontzi ugariz lagunduta; hala ere, laster hasi ziren atxiloketak (Badiola, 2015: 51). Aurreko hilabeteetan, matxinatutako armadak Malagatik erorarazi zuen, zehazki, otsailean. Hilabete horren amaieran, Guadalajarako gudua amaitu ondoren, Francok Iparraldeko kanpaina abiaraztea erabaki zuen, Mola jenerala buru zela. Apirilean Falange Española Tradicionalistan falangistak eta karlistak eta JONSak bateratzeko agindua eman zuen. Falangearen buruzagitza hartu zuen, eta Kondor Legioak Gernika bonbardatu eta Nafarroako IV Brigada hiribilduan sartu baino egun batzuk lehenago instituzionalizatu zuen agurra. Largo Caballerok dimisioa aurkeztu zuen Errepublikako Gobernuaren buru gisa, anarkistekin eta sozialistekin beste kabinete bat osatzen saiatu ondoren, komunistek boikotatu zutena, eta Azañak kargua eskaini zion Negrini, azken hauen ildo politikotik askoz hurbilago zegoena, maiatzaren erdialdean onartu zuena. Egun batzuk geroago, Mola hegazkin-istripuz hil zen Alcoceron (Burgos), eta Dávila jeneralak ordezkatu zuen Iparraldeko Armadako agintaritzan. Ekainaren erdialderako, Solchagaren tropek Burdin Hesia deiturikoa hautsia zuten eta, 17an, Eusko Jaurlaritzak Bilbotik alde egin zuen. Bi egun geroago, tropa frankistak Bilboko hiribilduan sartu ziren, eta Euskadi osoa matxinatutako lurraldea zen (Badiola, 2015: 49).

Hurrengo ataletan, hirian paisaia mota hori sorrarazi zuten eraikin eta leku batzuk deskribatuko dira, eta paisaia hori oso nabarmena da gerran dagoela, ikusi ahal izango den bezala.

a. Espetxeratze-zentroak

Euskal kartzelak garaitutako bandoaren presoz betetzen hasi ziren, okupazio-erritmoari jarraituz. Lehenengoa Araba izan zen, hurrengoa Gipuzkoa, 1936ko irailetik aurrera bete ziren kartzelak eta hirugarrena, Bizkaia, urtebete beranduago, 1937ko udan. 1938ko apirilaren 15eko Euskadiko Jaurlaritzaren txosten batek geografikoki banatutako 19.500 presoren berri eman zuen: 1.100 preso Araban, 3.000 Gipuzkoan (Irungo kontzentrazio-esparrua kontuan hartu gabe) eta 15.400 Bizkaian, hainbat kartzeletan banatuta (Urduñako kontzentrazio-esparrua kontuan hartu gabe), hau da, biztanleriaren datuak kontuan hartuta, Arabako eta Gipuzkoako biztanleen %1 eta Bizkaiko biztanleen %3 preso zegoen, erroldaren arabera[3]. Aurreko datuetan ere ez ziren sartzen behartutako auzolandegietan kokatutako gerra-presoak (enpresa militarizatuak, Oiartzungo eta Errenteriako batailoiak, edo Gallartako meatzaria, beste askoren artean); hala ere, erbesteratu zenetik zenbatetsitako kartzela-estanparen ideia bat ematen dute (Badiola, 2015: 49).

1937ko amaieran, kartzelak ez ezik, milizia errepublikanoen kuartelak erabili zituzten ia eraikin guztiak ere (eskolak, erlijio-ikastetxeak, komentuak...) gerra-presoak espetxeratzeko zentro bihurtu ziren. Hau da, aurretik errepresio errepublikarra jasan zuten euskal kartzelak (ez dira ahaztu behar eskuindarren presoen hilketak 1937ko urtarrilean Bilboko espetxeko bukei eta kartzelei egindako erasoetan, edo Ondarretako kartzelakoak, eta Tolosako eta Guadalupeko presoen hilketak) matxinatuen eskuetan zeuden errepresaliatuez bete ziren, gerran garaitutakoak ziren (Badiola, 2015: 49-50).

Atxiloketen ondoren, probintzia-espetxeetan bertan gerra-kontseiluak egin ziren. Donostiari dagokionez, Ondarretako Probintzia Espetxeko Justizia Aretoan izan zen. Gerra-kontseiluek fusilamenduak eta tokirik ohikoenak ekarri zituzten, eta Gipuzkoan, Ondarretako espetxeko tapiak, Donostiako Polloe hilerrietakoak, Hernaniko eta Oiartzun hormakoak, Bidebietako tiro-zelaia eta Berako harrobia (Badiola, 2015: 50).

Beraz, espetxeratze-zentro horiek oroimenerako lekuak dira, bertan milaka pertsonaren giza eskubideen urraketak gertatu baitziren. Espetxe frankistetan eskubide horien urraketa etengabea, planifikatua eta agintariek berek zuzendua izan zen, garaituak suntsitzeko eta menderatzeko tresna

[3] Euskadiko jazarpenari buruzko zenbakizko datuak, dokumentazio gorria AGMAV, C. 74, Cp. 9, D3.

gisa: Euskal nazionalistak, ezkertiarrak, errepublikanoak eta anarkistak. Agintari errepublikarrek gaitutako eta Eusko Jaurlaritzak kontrolatutako espetxeek ez zuten funtzio hori izan; hala eta guztiz ere, herritar zibilek batzuk eraso zituzten, eta ehunka preso hil zituzten, eskuindarrak, tradizionalistak eta monarkikoak zirelakoan (Ipiña, 2015: 317).

Jarraian, lanaren zatirik zehatzenean murgilduz, atal honekin lotutako kokalekuaren eta eraikinen garapena eta deskribapena hasiko da, eraikinak motaren arabera ordenatuko dira. Eraikin guztiak, atxiloketa-zentroak eta Donostiako udalerriarenak izango dira, baita garai historiko Garaikidetik begiratuko dira.

Lehenik eta behin, matxinatuen aldeko espetxeak ditugu. Matxinatuek Donostia hartu ondoren (1936ko irailaren 13an), errepresioak hainbat fase izan zituen, errepresiogileen zirkunstantzia partikularrek ñabartuak beti. Gipuzkoako populazio bakoitzean sartzean faxistek hartzen zuten lehen neurria ihes egin ez zuten errepublikano, anarkista eta jeltzaleen atxiloketa masiboa zen, kasurako tokiko espetxe bat gaituz. Donostian, hiribildu jendetsuenean, Ondarretako espetxeak ez zuen atxilotu-kopuru handia hartzeko adina edukiera izan, eta, beraz, agintari faxistek beste espazio batzuk egokitu zituzten (Egaña, 1998: 182). Horien artean, Easonense Zirkulua (1936ko irailetik ezezaguna den data batera arte), Falangeak Donostian zuen kuartel nagusia zen, kartzela bat zuena (Gabarain, 1938: 59-60). Eraikina Donostiako Alde Zaharran dago eta nahiz eta fatxada berreraikita egon egoera onean dagoela ikus daiteke. Bere erabilera gaur egun, lanbide edo etxebizitzena da. Donostiako falangistak “La Opera” amerikar kafean ere ezarri ziren (1936ko irailetik ezezaguna den data batera arte). Kafea bulego pribatu moduko bat zen, beren mendeku partikularren zerbitzurako antolatuta zegoena. Gabarainek, kartzeletatik bizirik irten zen errepublikarra, honela zioen: “Falangista hauek, frontean koldar hutsak direnak, hiltzaile arduratsuak izan ohi dira atzeguardian, eta hasiera-hasieratik jarri zituzten hiri guztietan hilketa-agentziak, goitik sistematikoki ezarritako izua gauzatzeko tresna ezin hobea. Koktel-jauntxo falangista mozkortiek milaka hilketa egin dituzte "paseoaren" prozeduraren bidez, beren biktimen hautaketa ganster banden edo bidelapurren partida zaharren irizpide eta berme berberekin egiten zuten kuarteltxo horiei esker” (Gabarain, 1938: 60). Eraikin hau Donostiako Boulevardean jarraitzen du gaur egun, etxebizitza-funtzioarekin eta egoera on batean mantentzen da.

Matxinatuen aldeko espetxeen barruan, zenbait espazio zeuden emakumeentzako espetxe gisa egokitu zituztenak (Egaña, 1998: 182). Horien artean, San Jose asiloa (1939tik ezagutzen ez den

data batera arte) Amara Zaharran kokatzen dena. Gaur egun, eskola gisa funtzionatzen du eta oso ondo kontserbatzen da. San José de la Montaña (1939tik ezagutzen ez den data batera arte), eraikina Ategorrieta auzoan dago eta zahar-egoitza bat da gaur egun. Kontserbazio-egoerari dagokionez, egoera onean dago, eraikin berbera baina kolorea seguruenik desberdina izango zen. Hotel Kontinentala (1936ko irailetik ezezaguna den data batera arte), Donostiako erdigunean kokatuta dago eta ederki iraunarazten da. Gaur egun ez du hotelaren funtzioa betetzen, etxebizitzarena baizik. Zapatariko Asalto Zaindarien kuartel zaharra (1936ko irailetik ezezaguna den data batera arte), El Infierno auzoan dago, errepidean bertan. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta Bide Azpiegituretako Departamentuak erabiltzen du, nahiko ondo mantenduta dagoena.

Hori ez ezik, Donostiako agintari militarrek Txofreko zezen-plaza (1939tik ezagutzen ez den data batera arte) bezalako kontzentrazio-eremuak ere egokitu zituzten. Neurri horren sorburua Frantziako Gobernuaren jarrera izan zen, ordura arte iheslari guztiak kanporatu baitzituen Katalunia errepublikanorantz. Francoren tropak Bartzelonan sartu zirenean, Frantziako polizia barneratze-eremuetatik kanpo atxilotzen zituzten milaka errefuxiatuak frankismoaren eremura botatzen hasi zen. Atxilotu horiek Hendaiara iristen ziren, eta bertan Irungo Espainiako poliziaren esku uzten zituzten. Mugako herritik Donostiako zezen-plazara eramaten zituzten kamioiz edo trenez, eta bertan 3.000 baino gehiago zeuden aldi berean, Frantziako poliziak emanda. Zezen plazatik eta frankisten agintariek beren espedienteak aztertu ondoren, barneratuak, gehienak, langileen batailoien parte izatera pasa ziren (Egaña, 1998: 182). Eraikin hau Gros auzoan zegoen, hau da, gaur egun plaza desagertu egin da, baina etxebizitza batzuk jarri dituzte haren lekuan, plaza baten inguruan.

Matxinatuek bezala, errepublikanoek ere beren kartzelak izan zituzten. Espainiako Gerra Zibilean, fenomeno bat penintsulako geografia osoan zabaldu zen, hain zuzen ere “Cheka”k, hauek ezkerreko erakundeen mendeko espetxe batzuk ziren, zeinetan justizia berezi bat gauzatzen baitzen. Gipuzkoan, oro har, esan daiteke fenomeno hori ez zela gertatu, bat izan ezik, CNTk Larramendi kalean bat zuen, hala ere, laster desagertu zen. Hala eta guztiz ere, izendapen hori erabiltzen da lurralde osoan errepublikaren eskutik inprobisatutako espetxeetarako, eta esan daiteke nazionalisten jardunak neutralizatu egin zituela (Barruso, 1996: 157-158). Donostian lau aurkitzen ditugu; Frantziskotarren eliza (1936ko uztaila eta abuztua) Egia auzoan kokatzen da eta gaur egun berreraikita dagoena baina bere eliza funtzioa mantentzen duena. Jai Alai frontoia Gros auzoan zegoen, frontoia desagertu da. Beraz, gaur egun aurkitzen dena errepide bat da. Jesusen Bihotza Ikastetxearen eraikina (936ko uztaila eta abuztua) Amara Zaharra auzoan dago eta hau da

Larramendi kaleko “Cheka” izan zen. Gaur egun egoera onean dagoen etxebizitza bat aurkitzen da. Mariaren Bihotzaren eliza (1936ko uztailaren 22a eta abuztua) Gros auzoan, ikastetxe eta komentu funtzioa betetzen du. Eraikina egoera onean dago, nahiz eta, segur aski, une hartatik aurrera kolorea aldatu egin dute, baina fatxada oso antzekoa edo berdina da.

Badira Gerra Zibilean erabili ziren kartzela batzuk, Errepublikaren garaitik erabiltzen zirenak, batez ere Ondarretako espetxea eta Kursaala (Badiola, 2015: 49). Kartzelaldi horietan, oro har, esan daiteke presoen egoera nahiko segurua zela eta bizitza eta kontrolik gabeko ekintzetatik salbu egotea bermatzen zela (Barruso, 1996: 157). Bestalde, atxiloketa-zentro hauek, Errepublikaren garaian, Ordena Publikoaren Komisariak (Barruso, 1996: 159, 161) zorrotz kontrolatzen zuen 1936ko irailaren 8ra arte, egun horretan Ondarreta eta Kursaaleko presoak itsasontziz Bilbora eraman zituzten, Donostia laster eroriko zelako (Egaña, 1998: 163). Beraz, matxinatuen eskuetan geratuko ziren. Ondarretako kartzela (1936ko uztailaren 18tik irailaren 13ra arte errepublikanoen esku eta 1936ko irailaren 13tik 1948ko maiatzera arte frankisten esku), probintziako espetxealdia zen. Kartzelak 1890etik 1948an behin betiko itxi zuten arte funtzionatuko zuen (Egaña, 2012: 8, 31). Eraikin hau Ondarretako hondartzaren ondoan zegoen eta gaur egunera arte ez da mantendu, bertan monolito bat jarri dute. Tenis Klubak ere hartzen espazio bat. Berriz Kursaala bat-bateko espetxea zen (Barruso, 1996: 161) eta Gros auzoan aurkitzen da, ondartza ondoan. Eraikin hau ez du mantendu bere egitura eta guztiz berreraikita dago. Bere funtzionamenduari dagokionez, gaur egun entzunareto batena da, lehen Zinema batena zena.

b. Gatazka belikoko lekuak

Lanaren atal honetan armada lehiakideei buruzko tokiak jorratzen dira; funtsean, bi bandoen milaka bizitza gatazkan galdu ziren puntu geografikoak aipatuko dira, eta, beraz, gatazkak eragindako hildakoak oroitzeko lekuak dira (Vargas, 2015: 87).

Jarraian, lanaren zatirik zehatzenean murgilduz, atal honekin lotutako kokalekuaren eta eraikinen garapena eta deskribapena hasiko da. Eraikin eta gune guztiak gatazka belikoko lekuak eta Donostiako udalerriarenak izango dira eta garai historiko Garaikidetik behatuko dira. Kasu horretan, gatazkaren ageriko markak dituztenak bakarrik aipatuko dira.

Militarrak, hilaren 21eko eguerdiaz geroztik errebeldian, erasora doaz. Hilaren 22an, goizaldean, zutabe bat atera zen kuarteletatik, Arana kapitainaren agindupean Donostia okupatzeko asmoz.

Urbieta Prim kalea bi puntutatik sartzen da hirian, Urumea ibaiaren ertzetik aurrera eginez, Maria Kristina Hoteleraino iritsi eta eraikin honetan eta kasinoan (egungo udaletxean) indarra hartuz. Militarrek, hiriaren erdialderaino iristea lortzen duten arren, ez dute hura kontrolatzen eta eraikin batzuetan giltzapetzen dira. Horrela, ezkerreko langile-erakundeek indar militarrei gogor aurre egingo diete (Barruso, 1996: 91).

Kasinoa (1936ko abuztuaren 21, 22 eta 23an) oso azkar berreskuratu zuten (Amilibia, 1978: 33), hala ere, bi fokurik gogorrenetako bat zen, Maria Kristinarekin batera (Chiapuso, 2003: 56). Gaur egun Donostiako Udaletxea da eta hiriaren erdigunean dago. Eraikin honen berezitasuna da guduaren aztarnak bistan daudela, hau da, eraikinak bala-markak ditu.

Maria Kristina hotela berriz (1936ko uztailaren 19, 22 eta 23a), benetako gotorlekua izan zen matxinoentzat (Chiapuso, 2003: 61). Hotela obsesio bat izan zen errepublikanoentzat (Amilibia, 1978: 30). Gainera, eraikina berreskuratzeko orduan, operazio gogorrena izan zen (Barruso eta Jiménez de Aberasturi, 2011: 141). Gaur egun hotelaren funtzioa betetzen jarraitzen du, eta hiriko luxuzkoena da. Udalak bezala, eraikin honek ere bala-markak ditu.

c. Osasun militarreko zentroak

Gerra-garaian, edozein eraikin erabilera militar bihur zitekeen, eta gauza bera gertatu zen ospitaleekin: 1936an, zibilak izatetik militarrak izatera igaro ziren gauetik goizera, osasunarekin zerikusirik ez zuten baina gaixoak eta zaurituak frontean hartzeko beharrezkoak izan ziren beste eraikin batzuekin batera. Ospitale militarrak izan ziren hiriburu guztietan eta euskal herri guztietan, ofizialak eta ofizialordeak, bai eta soldaduak ere. Beste gai bat gerrako presoen ospitaleena izan zen; izan ere, presoek beren osasun-zirkuitua izan zuten, eta arreta eman zitzaien, batez ere, kontzentrazio-esparruetako eta espetxeetako erizaintza eta kontsultategietan, bai eta haietara bideratutako ospitaleetan ere. Muturreko kasuetan baino ez ziren ospitaleratu, biztanleria zibilari eta kausaren eraginpeko militarrei zuzendutako ospitaleetan, alegia. Langileen batailoietan lan egin zuten presoen kasuan, zentro bereziak prestatu behar izan ziren osasun-arretaren eskari ikaragarriari erantzuteko, gizon horiek jasan behar izan zituzten lan-baldintza zailak zirela-eta (Badiola, 2015: 225).

Beraz, 1936tik 1937ra bitartean Eusko Jaurlaritzak prestatutako ospitale militarrak oroimenerako lekutzat jo daitezke; izan ere, ospitale horietan eta bertako medikuen lanari esker, ehunka edo

milaka pertsona salbatu ziren, borroka-frontean edo atzeguardian zauritu zituztenak matxinoen hegazkinen bonbardaketen ondorioz. Gune horietan ere heriotza asko gertatu ziren, ezin izan baitziren sendatu jasandako zaurietatik, eta, beraz, populazioaren zati batentzat beren senitartekoak edo ondorengoak hil ziren oroimenezko lekuak dira (Ipiña, 2015: 341).

Jarraian, lanaren zatirik zehatzenean murgilduz, atal honekin lotutako kokalekuaren eta eraikinen garapena eta deskribapena hasiko da, eraikinak motaren arabera ordenatuko dira. Eraikin guztiak osasun militarrekoak eta Donostiako udalerriarenak izango dira eta garai historiko Garaikidetik behatuko dira.

Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Osasun Komisaria antolatu zuen, eta haren eginkizuna izan zen Gipuzkoan zeuden osasun-zerbitzu guztiak kontrolatzea, bai arlo zibilean, bai arlo militarrean (Ipiña, 2015: 341). Osasun-zentro hauek aintzakotzat hartzen zituzten; General Mola Ospitale Militarra, 1936ko irailaren 13tik aurrera, Donostian, ebakuatu ezin izan zituzten eta harrapatuta geratu ziren fronteko zaurituak, beren zaurien larritasunagatik, Ospitale Militarrean artatu zituzten, eta, ondoren, Mola Ospitalea izena jarri zioten (Badiola, 2015: 50). 1938ko abenduaren 1ean, Donostiako Mola Ospitalean, gainerako ospitaleetan bezala, Martin Pinillos kontzentrazio-esparruetako koronel ikuskatzailearen agindua jaso zen, zeinaren bidez ospitale militarretako zuzendari eta osasun-buru guztiei jakinarazten baitzien debekatuta zegoela ospitaleratutako presoei baimenik izatea, erregimen juridikoa aldatzeagatik. Era berean, gerrako presoak horretarako prestatutako ospitaleetara eraman behar zirela agindu zen (Badiola, 2015: 226). Gaur egun, Egian dagoen eraikin hau, ez du ospitalearen funtzioa betetzen Justizia Jauregiarena baizik. Gurutze Gorria**,** 1930eko urriaren 1ean inauguratu zen, Matia kalean eraikia, ospitale zaharra hartzen zuen orubearen eta aldameneko lursailen gainean, eta María Cristina erreginak eskuratu zituen (Solórzano, 2021: 15). Ospitale hori Gerra Zibilean fronteko zaurituak artatzeko ere gaitu zuten. Gaurko egunean eraikina berreraikita dago eta kolore-aldaketa bat jasan du, ospitalearen funtzioa betetzen jarraitzen du Antiguo auzoan. Londres Hotela odol-ospitale bat izan zen. Odol-ospitale bat, behin-behineko Ospitale bat da, gerra-ekintza bat gertatzen den lekutik gertu kokatua, eta askotan alde bateko eta besteko zaurituak hartzen dira bertan. Establezimendu horien jatorria izan zen zaurituei azkar eta eraginkortasunez laguntzeko beharra, ospitalerik ez zegoelako asko hiltzen baitziren, laguntzarik gabe. Ospitale ibiltari horiek, gerran, hain dira sakratuak, non berotasun eta irakinaldirik handieneko uneetan ere errespetatu egin baitira (Solórzano, 2019: 1). Eraikin hau Donostiako erdigunean dago eta ia eraikin guztiak bezala, egitura arkitektoniko bera izaten jarraitzen du, baina margotua izan da. Gaur egun, hotelaren

